Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3197

AGINDUA, 2010eko ekainaren 8koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko 2008ko abenduaren 16ko Agindua aldatzeko dena.

Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2008ko abenduaren 16ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten zen bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifa berriak onartu ziren.

Estatuaren 2010. urterako Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 26/2009 Legearen 79. artikuluak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen 91.1 artikuluaren hasiera aldatu zuen. Horren ondorioz, bidaiari-garraioaren zerga-tasa ehuneko zazpitik ehuneko zortzira igoko da, 2010eko uztailaren 1etik aurrera. Baimendutako prezioak Balio Erantsiaren gaineko Zerga hartzen duenez bere baitan, bidezkoa da, sektoreak hala eskatuta, prezio horiei Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-tasaren igoera aplikatzea.

Bestetik, 2008ko abenduaren 16ko Aginduaren 6. artikuluak, 2009ko urtarrilaren 5eko Aginduaren bidez berridatzi baitzen, esaten du 1. artikuluan adierazitako IV. tarifa aplikatzerakoan jaieguntzat, igandeak eta Erkidegoko eta tokiko araudian jaieguntzat jotakoak hartuko direla, bai eta larunbatak ere. Zerbitzua hobeto antolatzeko ordea, eta sektorearen eskaerari men eginez, bidezko da abenduaren 24a eta 31 ere jaiegunekin parekatzea, IV. tarifa aplikatzeari dagokionean.

Ondorioz, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4.a artikuluak ematen didan eskumena erabiliz, eta bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo automobilez garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. eta 17. artikuluak kontuan izanik, hauxe

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

3197

ORDEN de 8 de junio de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se modifica la Orden de 16 de diciembre de 2008 por la que se aprueban las nuevas tarifas de los servicios de transporte público interurbano de viajeros en automóviles de turismo, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Por Orden de 16 de diciembre de 2008, de la Consejera de Transportes y Obras Públicas, se procedió a la aprobación de las nuevas tarifas de los servicios de transporte público interurbano de viajeros en automóviles de turismo, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 79 de la Ley 26/2009, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2010, modifica el encabezado del apartado uno del artículo 91 de la Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido, de tal forma que el tipo impositivo del transporte de viajeros pasará, con efectos de 1 de julio de 2010, del 7 por ciento al 8 por ciento. Dado que el precio autorizado lleva incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido procede, a petición del sector, repercutir en dichos precios la citada subida del tipo impositivo del Impuesto sobre el Valor Añadido.

El artículo 6 de la Orden de 16 de diciembre de 2008, según redacción dada por Orden de 5 de enero de 2009 por la que se modifica este precepto de la indicada Orden de 16 de diciembre de 2008, señala que a los efectos de la aplicación de la tarifa IV establecida en el artículo 1, serán considerados festivos los domingos y los días fijados como festivos en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados. Con el fin de lograr una mejor organización del servicio y atendiendo la petición del sector, se estima procedente asimilar los días 24 de diciembre y 31 de diciembre a los festivos a efectos de la tarifa IV.

En su virtud, y en ejercicio de la competencia que me atribuye el artículo 4.a del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, de estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, puesto en relación con los artículos 3 y 17 de la Ley 2/2000, de 29 de junio, de transporte público urbano e interurbano de viajeros en automóviles de turismo.

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifa berriak onartzen dituen 2008ko abenduaren 16ko Aginduaren 1. eta 6. artikuluak berridatzi eta honela uztea:

«1. artikulua.– Gidaria barne dela hamar plaza baino gutxiago eta VT motako garraio-baimena duten automobiletan egindako bidaiarien herriz kanpoko garraio publikorako gehieneko tarifa hauek baimentzea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne dela:

III. tarifa: egunekoa (07:00etatik 22:00etara)

	Euro
- Kilometroko	0,564141
- Itxaronaldia, orduko	15,49
- Gutxienekoa (1)	5,30

(1) Gutxieneko horrek 1.500 metroko ibilbidea hartzen du.

IV. tarifa: jaiegunetakoa eta gauekoa (22:00etatik 07:00etara)

	Euro
- Kilometroko	0,623874
- Itxaronaldia, orduko	16,30
- Gutxienekoa (2)	5,82

(2) Gutxieneko horrek 1.500 metroko ibilbidea hartzen du».

«6. artikulua.– 1. artikuluan ezarritako IV. tarifa aplikatzeko, jaieguntzat hartuko dira igandeak eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko araudiaren arabera jaiegun direnak, bai eta larunbatak eta abenduaren 24a eta 31 ere».

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Garraioetako zuzendariari Agindu hau eta aplikatu beharreko gainerako arauak interpretatzerakoan sortzen diren auziei buruzko erabakiak hartzeko.

DISPONGO:

Artículo único.– Se da nueva redacción a los artículos 1 y 6 de la Orden de 16 de diciembre de 2008, por la que se aprueban las nuevas tarifas de los servicios de transporte público interurbano de viajeros en automóviles de turismo, dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que quedan redactados como sigue:

«Artículo 1.– Autorizar las tarifas por prestación de los servicios de transporte público interurbano de viajeros en vehículos de capacidad igual o inferior a nueve plazas incluido la del conductor o conductora, y provistos de la autorización de transporte clase V.T., en las siguientes cuantías máximas, en las que está incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido:

Tarifa III (Diurna de 07:00 a 22:00 horas)

	Euros
- Km recorrido	0,564141
- Hora de espera	15,49
- Mínimo de percepción (1)	5,30

(1) El mínimo de percepción incluye 1.500 metros de recorrido.

Tarifa IV (Festivos y nocturnos de 22:00 a 07:00)

	Euros
- Km recorrido	0,623874
- Hora de espera	16,30
- Mínimo de percepción (2)	5,82

(2) El mínimo de percepción incluye 1.500 metros de recorrido».

«Artículo 6.– A los efectos de la aplicación de la tarifa IV establecida en el artículo 1, serán considerados festivos los domingos y los días fijados como festivos en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre».

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Se faculta al Director de Transportes de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la resolución de cuantas cuestiones pudieran plantearse en la interpretación de la presente Orden y demás normativa de aplicación.

Bigarrena.– Agindu hau 2010eko uztailaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko ekainaren 8a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor el día 1 de julio de 2010.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de junio de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.